

BEDAIO BERTAKOA NAGUSI



IRATI SAIZAR

Ettxeko produktuak kalera ateratzeko eguna izan zuten igandean bedaiotarrek, baita artisau lanetan hastekoa ere. Frontoia postuz bete eta inguruan animalien erakusketak jarri zituzten. Denetarik izan zen mahai gainean, barazkiak, mondejuak, postreak, landareak, gazta, jogurtak, ogia eta artisau lanak // **4-5**

Atzegizalei eskerrak emateko kanpaina abian jarri du Atzegik

‘Kaleatzegizale’ da elkarteak zabaldu nahi duen leloa. Jarrera positiboa da aurten azpimarratu nahi dutena: «Asko eskertzen dira detaileak» // **2**

Arrakastarik gabeko jardunaldia izan da talde nagusientzat

Tolosa Eskubaloia jokoa hobetu baina punturik ez du eskuratu; Lauburuk porrota jaso du, eta Tolosa CF-k berdinketa lortu du // **7**

Hausnarketaren bidea hartu du EH Bilduk, Aralarko aferan

Mankomunitateko koalizioaren bi ordezkari ez zuten adostutakoa bete hilaren 19ko batzarrean // **3**

Euskal Herriko Mus Txapelketaren finala, Anoetan



Urtarrila bitarte luzatuko dira kanporaketak; otsailean herrialdeetako finalak izango dira eta final nagusia martxoaren 25ean lehiatuko da // **2**

Joseba Otaegi bigarren, Atutxa II.aren atzetik

Zilarra Larrañagarentzat izango zela zirudien arren, Otaegik hartu zion aurrea azpeitiarrari // **7**

Bihar nolako ataria nahiko zenuke?

Inkesta
ataria.info
webgunean
edo deitu:
943 65 56 95

Lagundu erabakitzen
3 minutu
besterik ez dira

Eskerrik asko!

Keinu batek duen garrantzia eskertzeko kanpaina jarri du abian Atzegik

Atzegizale guztiei «eskerrak» emateko kanpaina jarri du martxan Atzegi elkarteak, 'Kaleatzegizale' lelopean. «Adimen desgaitasuna duten pertsonen bizi kalitatea asko hobetzen dute», adierazi dute

Ane Urkola Tolosa

Atzegi elkarteak urteroko kanpaina jarri du abian. Aurtengo kanpainaren helburua da kalean dauden atzegizale guztiei «eskerrak» ematea. «Irribarre egitea, hitz egitea, tratu goxoa izatea, bostekoa ematea. Keinu txikiak dira baina alde handia egiten dute: adimen desgaitasuna duten pertsonen bizi-kalitatea asko hobetzen dute», adierazi du Aloña Agirre Tolosako Familien Zerbitzu Laguntzaileko teknikariak kanpaina aurkezteko prentsaurrekoan.

«Adimen desgaitasuna duten

pertsonek ez dute, berez, desgaitasunik; ingurunearekin harremanak direnean sortzen zaizkie zailtasunak», azaldu du Agirrek. Ingurunearen garrantzia nabarmendu du teknikariak: «Ingurunearen eta herritarren jarrera positiboa bada, desgaitasuna duen pertsona horrek ahalmenak garatu ditzake; jarrera negatiboa bada, ordea, zailtasunak izaten ditu».

Hori dela eta, aurtengo kanpainaren bidez jarrera «positiboa» duten pertsona horiei guztiei «eskerrak» ematea dute helburu: «Askok eskertzen ditugu detaile horiek. Oso garrantzitsua

da familiarentzat eta adimen desgaitasuna duten pertsona guztientzat. Eskerrak ematen dizkiegu atzegizale guztiei», adierazi du Juani Adurriaga, Atzegi elkartearen senide batek. *Kaleatzegizale* lelopean, 8.000 kartel baino gehiago jarriko dituzte senideek eta kolaboratzaileek Tolosaldean eta Gipuzkoan osoan. Horretaz gain, eskuorriak eta txapak banatuko dizkiete atzegizale guztiei.

Sarera ere ailegatuko da kanpainaren oihartzuna. Marko bat sortu dute kanpainaren leloarekin eta argazkiak aterako dituzte kalean topatutako atzegizalee-



Ostiral arratsaldean aurkeztu zuten kanpaina, Zerkausion. ANE URKOLA

kin. Argazki horiek sare soziale-tan zabalduko dituzte: «Argazki horiek eredu gisa erabiliko ditugu gero eta atzegizale gehiago sortzeko, eta gero eta kale atzegizaleagoa lortzeko».

Whatsapp bidez ere zabalduko dute kanpainako irudia: «Atzegizale guztiek profilean jarri ahal

izango dute irudia, eta beren babesa adierazi».

Gaur egun, Tolosan 168 familia, 184 kolaboratzaile eta 790 atzegizale daude Atzegi elkartearen. Kanpaina horrekin kopuru hori handitzea espero dute, keinu txiki bakoitzak, eragin handia izaten jarrai dezan.

A. Urkola Anoeta

Euskal Herriko Mus Txapelketaren IX. edizioa izango da aurten eta finala Anoetan jokatu da, 2017ko martxoaren 25ean. «Egun horretarako musa eta jaia uztartuko dituen egitaraua prestatuko dugu Anoetako herritarrekin eta Udalarekin batera», adierazi du Iñaki Aristeta Euskal Herriko Mus Federazioko kideak.

Finalera ailegatzeko, ordea, bide luzea egin behar dute parte hartzaileek. Azaroan, abenduan eta urtarrilean herrietako kanporaketak jokatuko dituzte. Iaz, Euskal Herri osoko 220 herritan jokatu zen kanporaketa, eta kopurua handitzea dute helburu: «Ahalik eta herri gehienetan an-

Anoetan erabakiko da musularien txapel preziatua

tolatu nahi ditugu herrietako kanporaketak. Edonork lagundu diezaguke antolatzen www.eh-mus.eus webgunean edo gurekin harremanetan jarrita». Kanporaketen ondoren, 2017ko otsailaren 25ean jokatuko dituzte zazpi herrialdetako kanporaketak.

SARI BIKAINAK JOKOAN

Bidea luzea izango da txapel preziatua lortu arte, baina txapeldu-nentzat ez ezik, sari bikainak daude jokoan hurrengo sailkatuentzat ere. «50.000 euro baino gehiago banatzen dira sarietan

eta parte hartzaile bakoitzak oroigarria jasotzen du», azaldu dute prentsaurrekoan.

Euskal Herriko zazpi herrialdetako edonork har dezake parte txapelketan. Parte hartu nahi duenak izena eman behar du bere herrian antolatzen den kanporaketan eta 20 euro ordaindu behar ditu bikote bakoitzak. Herrialdetako finaletan garaikurrak eta asteburuko egonaldiak ere zozkatzen dituzte, eta finalera sailkatzen diren musulari bakoitzari gosaria, hamaiketako eta kamiseta ere ematen diete.

MUSA, NAZIO KONTZIENTZIA INDARTZEKO AITZAKIA

Euskal Herria osatzen duten zazpi herrialdetako herritarrek hartzen dute parte txapelketan. «Euskal Herrian ohikoenetakoa den mahai jokoa izanik eta hainbat mus txapelketa antolatzen zirela ikusita» ekin zioten txapelketa antolatzeari. Bere helburua da «Euskal Herriak bizi duen zatiketa administratiboa gainditzeko, nazio bakar gisa antolatzea eta nazio kontzientzia indartzeko», adierazi du Aristetak.

Herrietako informazioa eta

SARIAK

Txapeldunak. Txapela, garaikurra, 3.000 euro eta Karibera bidaiak.

Txapeldunordeak. Garaikurra, 1.500 euro eta bilagunentzat bidaiak Kanariar Uhartetara.

3. bikote sailkatua. 750 euro eta asteburuko egonaldia lau lagunentzat.

4. bikote sailkatua. 500 euro eta euskaraz ikasteko urte osorako bi matrikula.

5-8 arteko postuetan sailkatutako bikoteentzat. 250 euro.

9-16 postuetan sailkatutako bikoteentzat. 100 euro.

antolakuntzarako irizpide guztiak irakur daitezke www.eh-mus.eus webgunean.

IRAGARKI LABURRAK

Alokagai

Taberna-jatetxea.

Martxan den taberna-jatetxea alokatzen da Tolosan. Jende euskalduna bilatzen da. Informazio gehiagorako: 607690403 (Mikel).

Lan eskaintza

Zapata denda. 30 eta 40 urte bitarteko neska euskaldun bat behar da Tolosako zapata denda batean lau hilabetez lanaldi osoan lan egiteko. Salmentan esperientzia izatea baloratuko da. Interesatuak bidali curriculum: zapataadendatolosa@gmail.com



Ondo Mec-ek, Adunako mekanika industrialeko enpresak, hazkunde prozesuan murgilduta, Adunako lantegirako ondorengo langileak behar ditu:

- **CNC fresatzailea**, Heidenhain kontrola. Erref. "Fresatzailea"
- **CNC mandrinadorea**, Heidenhain kontrola. Erref. "Mandrinadorea"
- **CNC tornulari bertikala**, Siemens kontrola. Erref. "Tornularia"

Ondainsari interesgarria, hautagaiaren balioaren arabera, lan giro egonkorra eta berehala lanean hasteko aukera eskaintzen da.

Aurretik alor horretako lan eskarmentua eskatzen da, eta baita motibazioa, ikasteko gaitasuna, erantzukizuna eta autonomia ere.

Hautagaiek euren curriculum vitae-a posta elektronikoz bidali beharko dute seleccion@ondoazabal.com-era, bertan zehaztuz eskatzen den lanpostuaren erreferentzia.

www.ondoazabal.com



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua**

EH Bilduk hausnarketaren alde egingo du Aralarko aferan

Mankomunitateko koalizioaren bi ordezkari ez zuten adostutakoa bete eta honen aurrean hausnarketaren aldeko erabakia berretsi nahi izan du

Erredakzioa

Tolosaldeko EH Bilduk Enirio-Aralar Mankomunitateko Batzar Orokorrean emandako azken gertakarien inguruko azalpenak eman nahi izan ditu. Izan ere, urriaren 19an mankomunitateko batzarra egon zen eta hainbat desadostasun eman ziren.

Azken asteetan Enirio-Aralarren hartu beharreko erabakien inguruko hainbat lan bileran egin dituzte EH Bildun, baina koalizioa bi ordezkari ez zuten bertan adostutakoa bete pasa den astea batzarrean. Honen aurrean EH Bilduk azaldu nahi izan du, «Enirio-Aralar Mankomunitateari dagozkion gaien inguruko erabakiak ordezkari guztien artean martxan jarritako barne dinamikan eztabaidatuak eta adostuak» izan direla. Era berean, «eztabaida horietan parte hartu duten ordezkari guztien errespetua» merezi dutela esan du.

Desadostasunak Aralarren egin asmo dituzten pisten inguruan eman dira. Artzainen lana erraztu asmoz hainbat azpiegitura egin nahi dituzte bertan, eta EH Bilduk honen aurrean hainbat erabaki hartu zituen aipatu

lan bileretan. «EH Bilduk Goroskintxorainora arteko pista soilik eraikitzea hobesten du, betiere, proiektuaren erredakzio prozedura eta adjudikazio publikoa zorroztasun osoz errespetatu behar direla bermatuz». «Aurrerantzean eraiki beharreko gainontzeko azpiegitura guztien gaineko erabakiak hartzeko, hausnarketa estrategiko bat egitea beharrezkoa da, lehentasunezko lanak benetan zein diren erabaki ahal izateko», gaineratu du. Bi erabaki hauen berri irailaren 15ean egin dako mankomunitatearen batzarrean eman zuten, «eta zehazki, hausnarketa estrategikoaren gaia onartuta geratu zen bertan».

Urriaren 19ko batzarrean beraz, «gai zerrendan 2017. urterako inbertsio beharren zerrendaren onarpena bozkatzeari planteatzeko zela ikusita», koalizioak zerrenda mahai gainean uzteko eskatzea erabakia zuen, aldeko bozkarik eman gabe, baina bi ordezkari ez zuten hori defendatu. Honen aurrean hortaz, hausnarketa estrategikoa martxan jartzeari defendatzen jarraituko duela esan du EH Bilduk. «Aralar guztiona dela sinesten dugulako», gaineratu du koalizioak.



2014. urteko sari banaketaren artxiboko irudia. UZTURPE

Sormena eta euskararekiko ardura sustatu nahian

Ibarrako Udalak XXVI. Emeterio Arrese Literatur Lehiaketa abiarazi du; lanak aurkezteko azken eguna azaroaren 7a izango da

Erredakzioa

Euskara Zerbitzuak Emeterio Arrese Literatur Lehiaketa antolatatu du berriz ere. Helburua haur eta gazteen artean sormena eta hizkuntzarekiko ardura sustatzea dela esan du Tomas Ugaldebere euskara teknikariak. Ibarrran bizi edota ikasten duten 16 urte arteko haur zein gazteek hartu dezakete parte. Lanak aza-

roaren 7a arte bidali daitezke Euskara Zerbitzura edo kultur etxera. Olerkiak eta hitz lauak lanak aurkeztu ahal dira eta hiru maila egongo dira; Lehen Hezkuntzako 6-8 urte artekoena, 9-11 urte bitartekoena eta DBHkoena. Sari banaketa abenduaren 2an egingo dute.

Arlo zein ikuspegi desberdinetatik landu daitezke gaiak, hori bai, euskaraz izan behar dute.

Azaroaren 14a arte eman daiteke izena Frontenis Txapelketan

Erredakzioa

Jada ireki dute Berrobiko Ion Ander Izagirre Frontenis Txapelketan izena emateko epea. Azaroaren 14a izango da azken eguna eta Tolosako Aralar Kirolak dendan edo Berrobiko Iriarte Jartetxean eman daiteke izena. Parte hartzaile bakoitzak 5 euro ordaindu behar ditu. Partiden zozketa azaroaren 15ean egingo dute Etxola lokalean, 20:00etan.

Partidak azaroaren 19, 20, 26 eta 27an, eta abenduaren 3 eta 4an izango dira, eta finalak abenduaren 6an.

Gabonetako apaingarriak egiteko laguntza eskatu dute

Erredakzioa

Azken urteetan bezala, aurten ere herriko kaleetan jartzeko Gabonetako apaingarriak berrera-bilitako materialekin egingo dituzte.

Apaingarriak Uzturpe ikastolako ikasleek egingo dituzte eta horretarako ur botila hutsak behar dituzte. Bi lekutan utzi daitezke; botila handi zein txikiak udaletxean bilduko dituzte urriaren 31 bitarte 09:00etatik 14:00etara, eta 1,5 litroko ur botila gardenak ikastolan utzi daitezke.

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Gipuzkoako
3 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.info • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu

Perretxikoen ingurukoak batzuk, eta hamaika produktu eta artisautza lanen erakusleiho beste batzuk, baina azokak asteburuko errege-erreginak izan dira, elkartasun keinuekin batera.

Udazken loreen liluraz blai

Itzea Urkizu Arsuaga

Sekreturik ezkutuko-ena izan ohi da, askorentzat, onddoak biltzeko txoko kutunena. Horretarako, ordea, perretxikoen gozamen nahiz arriskuak ezagutzea da lehenengo pausoa. Bada, asteburuan aukera bikaina izan da horretarako, Tolosan, Mikologikaren azken txanpan.

Txanpi On Fest hitzorduarekin ekin zioten asteburuari, egitaraua jende gaztearengana hurbildu eta Pop Up espazio bat sortuz. Berdura plaza erabat itxuraldatuta, ordea, gazteak eta gateak ez zirenak ere bertaratu ziren, aterki koloredunen liluraz.

Ordu berean, baina plaza desberdinean, elkarte gastronomikoen dema izan zen, eta nor baino nor aritu ziren, pintxo tentagarriak prestatzen. Ibarrako Xepia elkarteak izan zen, epaimahaiaren dastamenarentzat, onena.

Eta, udazken loreen gurtza behar bezala biribiltzeko, larunbat goiza loria izan zen perretxiko zale askorentzat: Trianguloa plaza onddoen azoka bilakatu zen, eta eskualdeko nahiz kanpoko sukaldariak sormena uztartu zuten lehengaiekin, mokadu eskaintza zabala osatuz.

AURREA HARTU MINBIZIARI

Beasainen eskutik jaso zuen, iaz, Tolosak, minbiziaren aurkako martxa berdea ospatzeko lekukoa, eta larunbatean aldarrikapen eta prebentzio mezuen boz-



Ostiralean ez zen telefono eta kamerarik geratu, Berdura plaza erretratatu gabe. I. URKIZU

gorailu izan ziren Tolosako kale eta plazak.

Usabal kiroldegitik Plaza Zaharerraino oinez iritsi zen martxa, eta Tolosak Villabona eta Zizurkili lekukoa pasatu zien.

ETXEKOAK, KALERA

Udazkeneko ohituren uholdeari eutsiz, Bedaio bertako produktu eta eskulanean erakusleiho bilakatu zen igandean, azoka bereziko hitzorduan.

Horrez gain, «azoka parte hartzailea» sustatzeko helburuz, tailer eta ikastaroak ere izan ziren goiz osoan barrena. Artubi elkarte bazkariarekin biribildu zuten eguna.



Perretxiko erakusketak herritarren jakin-mina pizten du, urtero-urtero. I. URKIZU



harpidedun izateak badu saria zozketa

1 TOPIC

Tolosaldeko Nazioarteko Txotxongiloen Zentroa
Bi lagunentzako bina sarrera

www.topictolosa.com
Euskal Herria plaza
Tolosa
943 65 04 14



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **51**

2

Donostiako Aquariuma

Bi lagunentzako bina sarrera




Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **52**

3

Rubiorena Jatetxea

Bi lagunentzako bazkari edo afaria

Zaldizurreta, 7
Beasain
943 089 519



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **53**

Parte hartzeko deitu **902-82 02 40** telefono zenbakira edo sartu www.ataria.info webgunean • Aste honetako astearte edo asteazken goizean. Saridunak ostegunean argitaratuko ditugu.



Usabal kiroldegitik Plaza Zaharreraino, haur, gazte nahiz helduek osatu zuten minbiziaren aurkako martxa berdea. I. URKIZU



Bertako produktuak eta artisau lanak ikusgai izan ziren Bedaioako pilotalekuan. IRATISAIZAR



270.000 € + BEZ

231.390 € + BEZ

AZKEN ZATIA
PISUAREN PREZIOAN,
ETXEA

**ALEGIA
BEISTIN**

**CONSTRUCCIONES
ABURUZA, S.L.**

Tf: 943 690 297 - 607 445 484
www.aburuza.com - aburuza@aburuza.com

KIROL EMAITZAK

Areto futbola

BIGARREN B MAILA

6. jardunaldia	
Juventud-Lauburu Ibarra	4-3

Sailkapena

1. Pinseque	16p
2. Zierbena	14p
3. Debarrena	13p
12. Lauburu Ibarra	6p
16. Tafalla	0p

Hurrengo jardunaldia

Lauburu Ibarra (12.)-Sala Quinto(8.)

HIRUGARREN MAILA

6. jardunaldia	
Soloarte-Laskorain Ikastola	2-6

Sailkapena

1. Elorrioko	15p
2. Otxartabe	12p
5. Laskorain Ikastola	9p
14. Muskiz	0p

Hurrengo jardunaldia

Laskorain Ikastola, atsedena

Eskubaloia

ZILARREZKO OHOREZKO MAILA

7. jardunaldia	
Zamora-Tolosa Eskubaloia	24-20

Sailkapena

1. Barcelona B	14p
2. Zumosol	14p
3. Zamora	12p
16. Tolosa Eskubaloia	1p

Hurrengo jardunaldia

Tolosa Esk. (16.)-Torrelavega (11.)

Futbola

HIRUGARREN MAILA

10. jardunaldia	
Tolosa CF-Zalla	2-2

Sailkapena

1. Alaves B	26p
2. Durango	21p
3. Portugalete	20p
9. Tolosa CF	14p
20. Zalla	4p

Hurrengo jardunaldia

Portugalete (3.)-Tolosa CF (9.)

EUSKAL LIGA

7. jardunaldia	
Tolosa CF-Erandioko	2-2

Sailkapena

1. Oiartzun	21p
2. Bizkerre	16p
3. Zarautz	14p
11. Tolosa CF	8p
16. Erandioko	3p

Hurrengo jardunaldia

Oiartzun (1.)-Tolosa CF (11.)

ERREGIONAL PREFERENTEA, BIGARREN MULTZOA

6. jardunaldia	
Aretxabaleta-Intxurre	4-0
Ikasberri-Tolosa CF	1-2

Sailkapena

1. Soraluze	15p
2. Bergara	14p
3. Urola	12p
7. Tolosa CF	10p
14. Intxurre	4p
16. Mondragon	4p

Hurrengo jardunaldia

Intxurre (14.)-Zumaia (4.)
Tolosa CF (7.)-Eibar (6.)

LEHEN ERREGIONALA, LEHEN FASEA, 5. MULTZOA

6. jardunaldia	
Billabona-Segura-Goierri	2-2
Danena-Euskalduna	1-4

Sailkapena

1. Ordizia	15p
2. Segura-Goierri	10p
3. Euskalduna	7p
4. Billabona	6p
6. Danena	4p
7. Lazkao	3p

Hurrengo jardunaldia

Lazkao (7.)-Billabona (4.)
Segura-Goierri (2.)-Danena (6.)

Pilota

LAU T'ERDIKO TXAPELKETA

Lehen mailako ligaxka	
Victor-Altuna III	19-22

Promozioko ligaxka

Jaka-Peña II	22-17
--------------	-------

Hurrengo jardunaldia

Irribarria-Altuna III
Jaka-Laso
Dario-Peña II

Saskibaloia

EBA Liga

Hirugarren jardunaldia	
TAKE-Ardoi	46-65

Sailkapena

1. Cantabria	3-0
2. Ardoi	3-0
3. Valladolid	3-0
4. La Gallofa	2-1
11. TAKE	0-3
14. Burgos	0-3

Hurrengo jardunaldia

Gr. Santiago (10.)-TAKE (11.)

Presioa!



Jokin Altunak markagailua iraultzea lortu zuen ostiralean, Donostian. A. IMAZ

Aulkitik

Jexux Murua

Es-
skapada handia egin zuen Jokin Altunak joan den ostiralean lau t'erdiko txapelketa nagusitik kanpo geratu ez zenean. «Eskapa latza» egin zuela esan zuen berak, eta baita «presio handiarekin» jokatu zue-

la ere. Kirolariek asko aipatzen duten hitza da hori: presioa! Barrua lehertzeko zorian jartzen duen psikologia egoera, burutik hasita, hanka eta besoak puztu eta lotua uzten dituen; joko naturala, askea, bizia eta espontaneo egitea galarazi, erreakzioa moteldu, ibilera trakestu eta konfiantza galera eragiten duena. Altuna III.ak, uda ikusgarria egin ondoren, iaz txapelketa honetako onenen artean lehiatuta,

berak eta bere ingurukook jarritako espektatiben esklabo izateko arrisku handia dauka, bere moduko guztiek bezala: zenbat eta gorago, zenbat eta helburu goitiarragoak jarri, orduan eta arrisku gehiago presiopean aritzeko.

Presiopean aritu ziren igandean Peña II.a eta Jaka ere. Honek handiagoa hark baino, halere: urte batzuk badaramatzalako profesionaletan, joan den urtean finala jokatu zuelako eta helburu hori ez berritzea porrota litzatekeelako, kristo guztiak aurtan irabazi beharra daukala esaten diogulako... Jon Ander Peña berak bere buruari jartzen dionaren pean ariko zen, baina Erik Jakak beste guztiari egin behar aurre. Alde ederra zer galdu eta zer irabaziren arteko balantzan.

Sasoi puntu onean egotea eta norbere joko boladarekiko betebeteko konfiantza izatea izango dira ziur asko botikarik onenak. A! Eta kale edo bale zaleok beti aldeko gaituztela sentitzea. Aste-buru polita dator. Utikan presioari, goza ezazue eta goza dezagun.

KRONIKAK

Asteburuan lehiatutako partiden kronikak hemen irakurgai: www.ataria.info/kirola



OLAIA PLAZAS NAGUSI HERNIALDEN

Larunbatean, XVI. Hernialdeko Rolleski Igoeraren izan zen, Alpino Uzturre Elkartek antolatuta. 85 parte hartzaile izan ziren, Gipuzkoa, Nafarroa, Jaka eta Madriletik etorritakoak. Egu-raldi bikaina, animatzaile ugari eta emaitzen artean, skating estiloan Josu Erkizia eta Uxue Loizu izan ziren irabazleak, eta estilo klasikoan, Carlos Lannes eta Maialen Lopez. Infantiletan, berriz, Xabi Maeztu eta Olaia Plazas (Alpino Uzturre). Alpinokoek eskerrak eman dizkie laguntzaile guztiei, eta bereziki Aralar Kirolak eta Hernialdeko elkarteak nahiz udalari. I. URKIZU

Konfiantza

Harmailetatik

Iñaki Azaldeg

TAKE-ren jarraitzailea

Lehenik eta behin, derradan saskibaloiaz ezer gutxi dakien TAKEko bi jokalariren aita naizela, eta batik bat, horretxek motibatuta joaten naizela partidetara, ez zaletasun ikaragarriko batek bultzatuta, semeak joan ikusi nahiak baizik, hau da, nire iritziak duen balioa du, eskasa alegia, baina NASAKo ingeniari buru izateko koefizienterik ez badut ere urteen poderioz zer edo zer usaintzen badakidala esango nuke, ez gehiago, jakina.

Jakan denboraldi-aurrean jokatutako bi partida ikusteko aukera izan nuen, eta aurreko igandekoa izan zen ligako nire estreinako partida. Jakan jabetu nintzen zulo handi samarra zegoela aurreko denboraldiko taldearekin erkatuta, jokalaria garrantzitsuak falta zirela nabarmena egin zitzaidan, eta niri ez galdetu zergatia baina antzeman egiten zen jokoan, *xexxe* falta zen, ekipoa *berde* zegoen. Bi partida galtzetik eta oraindik bakarra irabazi gabe duen ekipa batek estomagoko zuloan tximeletak sentitzen hasten dela esango nuke, konfiantza eza gutxi asko nabaritzen eta urduritasuna antzematen, guztiz normala dena bide batez esanda, garaipenek ekartzen baitute lasaitasuna eta norbere buruarengan konfiantza, izan ere, joko ona eginaz gal-

tzeak ere maiz ez baitu balio izaten.

Jakatik hona aldaketa handia egin duela ekipeak esango nuke, hobera. Eginagoa dago taldea, beste jokalaria batzuek erantzukizuna hartu dute eta bide horretan jarraituz gero emaitzak ere etorriko direlakoan nago. Gazte asko dago eta denbora behar dute EBA mailan egoki eta taxuz aritzeko, eta bidea eginez egiten da, eta ez dago bidezidor azkarrik. Lana, lana eta lana dira bidea, taldea indartzeko, konfiantza lortzeko, EBA mailari behar den jarrera eta portaeraz heltzeko.

Partida guztietan lehiatu behar dela uste dut, gogor lehiatu, gogoz borrokatu baina aurtengoa batik bat, behealde horretan arituko direnekin aritu beharko dutela gogorrenen eta partida horiek irabaztera joan beharko dutelakoan nago, horietan puntuak ateratzeko premia gorria izango dute-eta, nire uste ezjakinean! Liga bakarreko beheko ligaxkan aritu beharko du taldeak, eta hor irabazi, besteekin ahal dela sorpresaxoren bat emanez, eta Jakatik hona egindako hobekuntzak badarrai, urte berriarekin arestian aipatutako *sorpasso* horietakoren bat ere ikusiko dugu, bai horixe!

Zorte pixka bat ere behar izaten da beheranzko joera hartutakoan, baina zortea normalean lanak aldatzen du eta espiritu kementsuak, eta hori zorionez egon badago.

1, 2, 3 TAKE!

Joseba Otaegi, txapeldunorde

Erredakzioa Zizurkil

Euskal Herriko Aizkolari Txapelketaren finala igandean jokatu zen Bilbon. Bizkaia pilotalekuan 1.000 ikusle elkartu ziren. Sei aizkolari aritu ziren lanean, eta Joseba Otaegi zizurkildarra bigarrena izan zen, Atutxa II.aren atzetik. Bizkaitarrak lortzen duen hirugarren txapela da, eta beste guztien gainetik dagoela erakutsi zuen. 12 enbor ebaki behar zituzten finalistek: lau kanardiko, lau 60 ontzako eta lau oinbiko. 44 minutu eta 47 segun-

doan amaitu zituen lanak Aitzol Atutxak. Bigarren postua Larrañaga azpeitiarrarentzat izango zela zirudien, baina bukaeran behera egin zuen eta azken aurreko enborrean Joseba Otaegik pasa zion, atzetik aurrerako lana eginaz. Zizurkildarraren denbora 48 minutu eta 25koa izan zen. Larrañagak amaitu zuen hirugarren, Otaegik baino 15 segundo gehiago eginaz. Laugarrena kanporaketa irabazi zuen Iker Vicente izan zen, 49:32ko denborarekin. Lopez eta Mugertza II.ak itxi zuten sailkapena.

Maila ezin harturik dabilta talde nagusiak

Tolosa Eskubaloia itxura hobetu arren, punturik ez du pilatu; Lauburuk etxetik kanpo galdu egin du, eta Tolosa CF-k, etxean, berdindu

ENTRENATZAILEEN ERREAKZIOAK



MIKEL DIESTRO
LAUBURU IBARRA

1 «Juventud del Circulo CD talde gogorra da, eta partida ez zen erosoan izan; itxia. Hala eta guztiz ere, atsedenaldira 0-0ekoarekin iritsi ginen».

2 «Aurkaria gu baino erosoago zegoen, eta bigarren zatian aurretik jarri ziren falta baten ondorioz. 2-0ekoa gure eraso baten ondoren etorri zen, kontraerasoan».

3 «2-1 penaltiz jarri arren, arrastaka ibili ginen, bi txartel horien ondoren jokalaria bat gutxiagorekin geratu baikin bi minutuz. Kasta erakutsi genuen, eta ez zuten golik sartu tarte horretan, baina ondoren bai, 4-1 jarri arte».

4 «Berrero ere kastatik tira eta aurrera egin genuen, 4-3 jarri arte. Baina ez zen posible izan berterik lortzea».

5 «Argi dago Bigarren B Mailan talde guztiak ongi prestatuak daudela, eta edozeinek edonori irabaztea daukala. Lau edo bost talde badiira kalitate handiagoa dutenak, jokalariei begiratuta batez ere. Baina hala eta guztiz ere, talde bezala guztiak hortxe gaude. Lanean jarraitu behar da, pixkanaka-pixkanaka ea hobetzen joaten garen».

6 «Sailkapenari begira jartzeko oraindik goiz da. Egutegia hor dago, eta oraindik zerbait argi ikus-tea zaila da».



ALEX NOGUES
TOLOSA ESKUBALOIA

1 «Sentsazio onak berreskuratu genituen faboritoetako baten aurka. Zamora talde indartsua da, baina ez ginen kikildu. Hala eta guztiz ere, beste behin, punturik gabe itzuli ginen etxera».

2 «Aurkariaren ate aurrean ez genuen asmatu, eta hor egon zen gako».

3 «Partida hasieran zalantzak genituen, zein Tolosa ikusiko genuen. Hasiera horretan protagonistak atezainak izan ziren. Eurenak 11 geldiketa egin zituen, eta Urtzi Otegi 13».

4 «23. minutuan 8-2 joan arren, ondorengo zazpi minutuetan 8-6 jarri ginen, atsedenaldira emaitza horrekin iritsiz. Ondoren, partida berdintzea lortu genuen, baina etxekoek kalitatea eta esperientziatik tira zuten, 21-14 jarritz».

5 «Azken 10 minutuetan esfortzu berri bat eginaz 24-20 iritsi ginen. Itxura ona baina saririk ez».

6 «Golak sartzea kostatzen ari zaigu denboraldi hasiera hone-tan. Berrero ere 7 metrotik kale egin genuen, hiru jaurtiketa huts egi-nez».

7 «Hurrengo partida Usabalen jokatuko dugu, larunbatean, 18:45ean. Sailkapenean 11. dagoen Torrelavega izango da aurkaria»



IMANOL CABERO
TOLOSA CF, EUSKAL LIGA

1 «Partidari gogotsu egin genion aurre, sailkapen nagusiko azkenen aurka jokatzeko gurelako. Baina argi geratu zen, azkenak joan arren, hemen partida guztiak borrokatuak direla».

2 «Berrero ere lehen minutuetan markagailuan atzetik jarri ginen. Oraingoan 3. minutuan sartu ziguten gola. Egia da 9. minuturako partida iraultzea lortu genuela, baina hasierako minutuetan gertatzen dena kontuan hartzekoa da».

3 «2-1 jartzea lortu genuen, zailena eginaz, eta horrela iritsi ginen atsedenaldira. Bigarren zatian penalti bat medio, berdinketa lortu zuten Erandioko Betiko Neskek. Hortik aurrera, asko kosta zitzaigun gure jokoa egitea. Azken partidetan gertatzen ari zaigun bezala, azkarregi hasten gara jokatzeko, presak».

4 «Lasaitasun gehiago behar dugu, eta hori, dinamika hone-tatik ateratzen garenean etorriko da. Puntu gehiago izateko meritua egiten ari gara, baina ez ditugu lortzen. Dinamika hori aldatzeko ez da partidari egokiena izango hurrengo astekoa, Oiarzun liderraren aurka jokatuko baitugu. Baina ikusiko da».

5 «Lesioekin ere arazoak ditugu. Azken partidetak goleatzaileak, Zuriñe Iglesias eta Ainhoa Bengoetxea 10 egunerako baja izango dira, zaintiratuak medio».



ASTEARTEA, 2016KO URRIAK 25

Argitaratzailea:

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM

Lege Gordailua: SS-1323-2013

Koordinatzailea: Naiara Roldan de Aranguiz

Kudeatzailea: Jexux Murua

Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.

Telefonoa: 943 65 56 95.

E-posta: ataria@ataria.info

Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.info

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.info

Villabona-Aiztondo: 687 410 022.

villabona-aiztondo@ataria.info

Anoetalea: 687 410 022.

anoetaldea@ataria.info

Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@ataria.info

Alegialdea: 687 410 034.

alegialdea@ataria.info

Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.info

Bezera arreta zerbitzua: **902 82 02 01**



www.ataria.info

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Ballarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



127 parte hartzaile izan ziren Amasako mendi duatloian. IRATI SAIZAR

XXIV. aldiz jarraian, mendi duatloiak hartu du Amasa.
Aurten, berrikuntza gisa, erreleboka egiteko aukera izan da.

Lokatzez blai, Amasan

Irati Saizar Amasa-Villabona

gande goizeko prestaketa-
tan eguraldia lagun bazen
ere, euripean eman zioten
hasiera 127 parte hartzaile-
ek. Horietatik 12 lagunek
erreleboka egiteko hautua egin
zuten, beraz, 6 bikotek egin be-
harreko lanak banatu zituzten.
Ibilbidea hiru zatitan zegoen ba-
natuta; lehenengoan, 4,25 kilo-
metro egin behar izan zituzten
korrika; jarraian, 17 kilometro
pedalei eragin behar izan zieten;
eta azkenik berriro ere korrika
egin behar izan zuten metara

heltzeko, 2,5 kilometro, orain-
goan.

PODIUMA OSATUTA

Mendi bideak eta belazeak segi-
tuan lokatze ziren, baina, hori ez
zen aitzakia izan egin beharreko
lanak burutzeko. Helmugara le-
hena iristen Eneko Gurrutxaga
izan zen; jarraian, Alexander Or-
deñana iritsi zen eta hirugarren
postua Aitor Regillagarentzat
izan zen. Emakumezkoetan, Zu-
riñe Frutos izan zen azkarrena;
Esti Garcia helmugaratu zen on-
doren eta podiuma Laura Pere-
zekin batera osatu zuten. Errele-

boka, Mikel Senperena eta Iñaki
Olano izan ziren garaile; biga-
rren postuan, Enrike Piedra eta
Oscar Petisco izan ziren eta hiru-
garren postuan Asier Gorostegi
eta Jorge Aranburu iritsi ziren.
Taldea ere bazen parte hartze-
rik eta talde azkarrenaren saria
Galarregi Galdaratzentzat izan
zen.

ARGAZKI GALERIA

XXIV. Amasako Mendi Duatloiak
emandako argazki bilduma ondo-
rengo helbidean ikusgai dago:
www.ataria.info/kirola

ASTEARTEA 25

AGENDA

Deialdiak

Tolosa. *Gaztetxoak eta drogak:* Zer
egin dezakete gurasoek? hitzaldia.
Izar Arregipsikologoaren eskutik
izango da, euskaraz, Gorosabeleko
liburutegian. DBHko 1, 2 eta 3. maila-
ko gurasoei zuzendua. 18:00-20:00
bitartean, Orixe institutuan.

Tolosa. Jesus Vallejoaren egur lanen
erakusketa. 40 urte baino gehiago
egurra zizelatzen dabilen Jesus Va-
llejo artistaren erakusketa da. Urria-
ren 29a arte.

Larraul. *Binilozko euskal diskoak,*
erakusketa. Larraulgo Ekomuseoan
binilozko diskoak ikusgai, entzungai
eta dantzagai egongo dira. Azaroa-
ren 6a arte, Ekomuseoan.

Zizurkil. *Marras marra* erakusketa.
Lierni Mendia Villabonan jaio eta As-
teasun bizi den artistaren lanak
ikusgai daude, erakusketa gunean.
BIC boligrafoa erabiliz eginak dira lan
guztiak. Urriaren 30a arte, Plazida
Otaño liburutegian.

ATARIA IRRATIA

09:00-11:00. Pasahitza.

Eguraldi iragarpena Iker Ibarluzearen
eskutik, eskualdeko berriak, artea-
ren txokoa, teknologia, Haritz Mujika
Kale Kantoitik, eta lehiaketa, deitu
10:45etik 10:55era.

11:00-12:00. Hamaiketakoa.

Alegialdeko albisteak.

12:00-13:00. Entzuteko jaioak.

Musika saioa.

16:00-18:00. Zebrabidea.

Goizeko saioak

utzitako onena.

20:00-20:30. Kokondo. Oskar
Tenaren musika saioa.

28 KANALA

12:30. Nafarroa Oinez.

13:30. Gaurkoan Tolosaldetik.

17:30. Gaurkoan Tolosaldetik.

20:00. Tolosako Udalaren Osoko Bil-
kura zuzenean.

21:30. Gaurkoan Tolosaldetik.

22:00. Hurbilean Benito Lertxundi.

22:30. Erreportatea: Fafor etxe-
tresnak: Hiru urte itxiera ezker.

23:30. Gaurkoan Tolosaldetik.

+ FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa.

Bronte Posada, C. Korreo kalea, 20.
Telefonoa: 943 676013.

Gauekoa. Morant Barber, R.


Zabalarreta lorategiak, 1.
Telefonoa: 943 673849.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Nahiko hodeitsu es-
natuko da eguna, baina os-
tarteak geroz eta zabala-
goak izango dira. Hala ere, eguna bu-
katzerako hodeiak gailenduko dira.
Tenperatura: 21-22 gradu.

Bihar. Eguraldiak garbitzera
egingo du. Goietan aire ho-
tza eta tenperaturak zer-
txobait behera (19-20). Goizean ho-
deiren bat, ostarteak geroz eta za-
balagoak izango dira. Eguna
bukatzerako hego-ekialdeko haizea.



sarrerak

Atarikideentzat
2 tarta ditugu

**TOLOSA
GOXUA**

- Gorosti: Gambeta.
- Saizar: Pantxineta.

Urriak 29, larunbata

Zozketan parte hartzeko osteguna, 13:00ak arte:
943 65 56 95 edo www.ataria.info